



Universitat Autònoma de Barcelona

UABko Hizkuntza plana (2011-2015)

(Gobernu Kontseiluak 2011ko urtarrilaren 26an onartutako dokumentua)

UABko Hizkuntza plana (2011-2015)

1. Hizkuntza planaren helburua

UABko politika linguistikorako marko estrategiko bat eratzea.

2. Aplikazio-eremua

Universitat Autònoma de Barcelona. UABren gogoia da UABk gehiengo partaidetza duen entitateerako Planaren zenbait irizpideren aplikazio ordezkatzailleak proposatzea eta honek Unibertsitateak onartzen dituen entitateentzat orientazio-iturri bezala ihardutea.

3. Iraupena

Plana bost urtetarako, 2011ko urtarriletik 2015eko abendura, proposatzen da.

4. Planaren tipologia

Hizkuntza plana marko orokor bat izan behar da, bidai orria, eta zentro bakoitzak, bai titulazioka bai zentroka, berau gauzatzeko mekanismoak jarri behar ditu martxan. Garrantzitsua da, baita ere, emaitzen ebaluaketarako adierazleak zehaztea.

5. Segimenduaren arduraduna

Hizkuntza-politikarako batzordeak (Gobernu Kontseiluaren ordezkaria) egingo du Planaren segimendua. Burututako jardueren memoria urtero aurkeztuko zaio Gobernu Kontseiluari.

Zentro bakoitzak ordezkari bat hautatu beharko du politika linguistiko kontuetarako.

Hizkuntza zerbitzua da Planari laguntza teknikoa ematearen arduraduna.

6. Beharrezko baliabideak

Planak garatu beharreko jardueretarako aurrekontu aurrikuspena ezarriko du. Urtero, jarduerak lehentasunaren arabera ordenatuko dira eta aurrekontu-disponibilitatearen arabera garrantzitsuenei lehentasuna emango zaie.

7. Egitura eta edukiak

Plana behean aipatzen diren elementuetan oinarritzen da:

7.1. Marko orokorra

UABko Hizkuntza plana hurrengo marko orokorraren parte da:

Katalana, gaztelaniarekin batera, Kataluniako eta hezkuntza maila guztietako berezko hizkuntza eta hizkuntza ofiziala da, eta beraz, UABko berezko hizkuntza. Berezko hizkuntza izateak, katalana Unibertsitatearen bikaintasun eta talentuaren erakarpen eta fidelizazio helburuak lortzeko funtsezko elementu bihurtzen du, konpetentzia linguistikoa ezinbestekoa baita garapen pertsonal eta profesionalerako. Bestalde, unibertsitate katalan bezala, UAB katalanaren erabilera, dibulgazio eta hizkuntza honetan burututako zientzia ekoizpena bermatzearen arduraduna da.

Gaztelania, katalanarekin batera, Kataluniako hizkuntza ofiziala da, eta beraz, UABkoa ere bai. Halaber, garrantzitsua da Unibertsitatearen internazionalizazio estrategirako.

Ingelesa nazioarteko komunitate akademikoaren *lingua franca* bihurtu da, talentuaren erakarpen eta fidelizatorako ezinbestekoa, Unibertsitatearen bikaintasun eta internazionalizazio helburuak lortzeko nahitaezkoa. *Lingua franca* izanik, gero eta erabiliagoa

da lan-hizkuntza eraginkor bezala Unibertsitateko aktibitatean eta baita ikasleriaren garapen akademikorako ezinbesteko aktiboa. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu ingelesaren lingua franca estatusa formalizatzea, eta aldi berean, beste hizkuntza ez-ofizialeatik bereiztea, Plan zuzendariak (AE 28) bultzatutako gradu eta gradu-ondoko ikasketetan ingelesez eskainitako irakaskuntzaren sustapenarekin bat.

Ingelesak nazioarteko komunitate akademikoan lingua franca bezala duen papera eztabaida ezina izan arren, beste hizkuntza batzuk ere, hala nola frantsesa, alemana edo italiara, besteak beste, estrategikoak dira erreferentziako hizkuntza bezala jakintza-arlo zehatzetan eta zenbait ingurune profesionalean. Halaber, lanbide batzuetan eleaniztasuna nabarmenki baloratzen da.

Unibertsitatearen internazionalizazio estrategian, frantsesa nabarmentzen da arrazoi geostrategikoengatik, gertutasun eta tradizioz. Gaur egun, garrantzitsuak dira, baita ere, txinera eta koreera, Unibertsitatearen komunikazio eta sustapenean, Txina eta Korearen aldeko apustu estrategikoaren ondorioz.

Azkenik, Unibertsitatearen aktibo garrantzitsua da bere kapital linguistikoa: *unibertsitate* kontzeptua, bere hastapenetik, eleaniztasunari lotuta doa faktore aberasgarri bezala, ezagutza sortu eta kontsumitzen duten pertsonen arteko hurbilketa-bide bezala. Unibertsitatean bizikide diren kultura eta hizkuntzak komunitate unibertsitarioa aberasten dute alde batetik, eta bestetik, hizkuntzekin erlazionatuta dauden ikasketa, zentro, institutu eta ikerkuntza talde eta zerbitzuek, ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta berrikuntzak dakartzate arlo honetara.

7.2. Egitekoa, ikuspena eta balioak

Egitekoa

Hizkuntza plana politika linguistikoaren esparruan UABko egitekoa garatzeko beharrezkoak diren helburu eta jarduerak ezartzen dituen tresna da.

Ikuspegia

Hizkuntza planak erraztu egin behar du UABren garapena:

- Irakaskuntzan, ikerkuntzan eta komunikazio instituzionalean kalitate linguistiko eta komunikazio eraginkorraren eredu bezala;
- Hizkuntzen arloan, ikerkuntza, transferentzia eta berrikuntza eragile bezala;
- Unibertsitate-eleaniztasunaren gobernantza ereduaren eraketa eta aplikazioan bertoko eta nazioarteko erreferentzi-eredu bezala;
- Hizkuntzen iraunkortasunarekin konpromiso sendoa duen eredu bezala.

Balioak

UABk, 2010-2012 aldirako Plan zuzendarian, hurrengo balioak izendatu ditu Unibertsitateerako: leialtasun instituzionala, bikaintasuna, espiritu kritikoa eta berritzailea, dibertsitatea, solidaritatea, konpromiso sozial eta kulturala, erresponzabilitatea, efikazia, eraginkortasuna, gardentasuna, partaidetza eta iraunkortasuna.

Hizkuntza plana UABren balioen fruitu diren hurrengo balioetan oinarritzen da:

- Katalanaren sustapena, berezko hizkuntza bezala, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta jakintzaren transferentzian. Konpromiso sozial eta kultural, erresponzabilitate, bikaintasun eta iraunkortasunaren emaitza da;
- Ingelesaren sustapena, nazioarteko komunitate akademikoaren lingua franca bezala, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta komunikazio instituzionalean. Bikaintasun eta erresponzabilitatearen emaitza da;

- Unibertsitateko eleaniztasunaren onarpena, komunitate unibertsitarioaren kompetentzia interkulturalarena eta eleaniztasunarena, UABko internazionalizazioarako aktibo estrategiko bezala. Espiritu kritiko eta berritzailearen, bikaintasunaren, dibertsitatearen eta iraunkortasunaren emaitza da;
- Hizkuntzen estatusaren ondorio diren eskubide eta betebeharrak linguistikoen eraginkortasun eta gardentasuna: katalanarena berezko hizkuntza bezala, katalan eta gaztelaniarena hizkuntza ofizial bezala, ingelesarena nazioarteko komunitate akademikoko lingua franca bezala eta, testuinguru zehatzetan, baita beste hizkuntzen ere. Leialtasun instituzional, erresposabilitate eta gardentasunaren emaitza da.

7.3. Helburu estrategikoak

UABko Hizkuntza planaren helburu estrategikoak bat datoz Unibertsitateak 2010-2012 Plan zuzendarian ezarritako helburu estrategikoekin: talentuaren erakarpenean eta fidelizazioa, eta kanpusaren internazionalizazioa.

Halaber, kontutan dituzte Kataluniako Generalitateak helburukako finantzaketa aldakorrerako 2008-2010 aldirako ezarritako unibertsitate katalan publikoaren kompetentzia linguistikokoaren hobekuntzarako helburuak.

Hizkuntza planaren helburu estrategikoak honako hauek dira:

- Katalanaren erabilpena finkatzea Unibertsitateko esparru guztietan berezko hizkuntza bezala;
- Batez ere ingelesez eskainitako irakaskuntza eta hizkuntza honetan argitaratutako ikerkuntza gehitzea;
- Unibertsitatearen erabilzaileekiko disponibilitate linguistikoa zabaltzea;
- Unibertsitateko komunikazioen kalitate linguistikoa ziurtatzea;
- Komunitate unibertsitarioaren elkarrekintza interkulturalerako gaitasuna hobetzea.

7.4. Jarduera-eremuak eta ardatzak

Hizkuntza plana UABko 2010-2012 Plan zuzendarian ezarritako lau jarduera-eremutan egituratzen da eta Hizkuntza planaren berariazko hiru ardatzetan.

Eremuak

- Pertsonak
- Balio sorkuntza eta berrikuntza
- Ingurunea
- Baliabideak

Ardatzak

- Kudeaketa eta instituzio ardatza
- Ikerkuntza eta irakaskuntza ardatza
- Harrera eta mobilitate ardatza

7.5. Jarduerak

Jardueren edukiak helburu estrategikoetatik gauzatzen dira (ikus 7.3 atala). Jarduera hauek Planaren iraunaldian lortzeko modukoak izan behar dute eta lau mota desberdinetakoak izan litezke:

- Diagnostiko jarduerak
- Erregulazio jarduerak
- Inplementazio jarduerak
- Laguntza jarduerak

Urtero jarduera plan bat finkatuko da une horretako beharrianak eta aurrekontu-disponibilitatea kontutan hartuz.